Victoria lakuko uharte txiki batean, Kenyan, arrantzaleek edozertarako eskubidea dutela uste dute. Bitartean, emakumeek eta neskatilek isilik egon behar izatearen zama jasan behar dute. Haurtzaroko oroitzapenetara egindako bidaia intimo batean, neska gazte batek bere istorioa kontatzea erabakiko du, bere zamatik askatu eta itxaropenerako bidea aurkitzeko...

En una pequeña isla del Lago Victoria, en Kenia, los pescadores se creen con derecho a todo. Mientras tanto, mujeres y niñas se ven forzadas a cargar con la losa del silencio. En un viaje íntimo a sus recuerdos de infancia, una joven decide contar su historia para liberarse de su carga y encontrar el camino a la esperanza...

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 17 igandea, 21:30ean / domingo 17 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 18 astelehena, 17:30ean / lunes 18 de octubre, 17:30



## BIENVENIDO MR JUANJO

Félix Zurita / Fikzioa
Nicaragua, España / 2020 / 106 min
V.O. Castellano

cedoc@fundacionluciernaga.org

Loma Verde Nikaraguako iparraldean dagoen herrixka txiki bat da, mendixka berde eta kafe-soroen artean kokatua. Han, bizitza itxuraz barea da, baina Juanjo iristen denean, letrinak eraikitzeko misioa duen kooperante bat, itxaropen handiak sorraraziko ditu bertako biztanleengan, bereziki amets egiteko joera duen eta bizitza gogorra izan duen Mercherengan. Juanjoren eta Mercheren istorioa hain hurbil eta aldi berean hain urrun dauden bi kulturen arteko topaketaren (edo talkaren) isla errealista bezain umoretsua da.

Loma Verde es una pequeña aldea rural en el norte de Nicaragua, situada en un paraje de verdes colinas y cafetales. Allí la vida transcurre en una aparente calma, pero la llegada de Juanjo, un cooperante con la misión de construir letrinas provocará en sus habitantes muchas expectativas, particularmente para Merche, una mujer soñadora y muy golpeada por la vida. La historia de Juanjo y Merche es un reflejo realista y no carente de humor del encuentro (o desencuentro) de dos culturas, tan cercanas y al mismo tiempo tan distantes.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19 asteartea, 21:30ean / martes 19 de octubre, 21:30



## CONDENADAS EN GAZA

Beatriz Lecumberri, Ana Alba García / Dokumentala
Palestina, Israel, España / 2020 / 42 min
V.O. Árabe, inglés / SUBT. Castellano

beatriz.lecumberri@gmail.com

*Condenadas en Gaza* filmak minbizia duten hainbat emakume palestinarren istorioa kontatzen du, Gazako Zerrendan bizitze hutsagatik behar duten tratamendua eskuratzeko aukerarik ez dutenak. Israelek ezarritako blokeoak zenbait tratamendu sartzea eragozten du, eta Zisjordaniako edo Jerusalem Ekialdeko beste ospitale palestinar batean tratamendua jaso ahal izateko irteera-baimena aurkeztea eskatzen die paziente horiei. Israelek halako oso baimen gutxi ematen ditu. Zerrendako gaixo guztiek bezala, tratamendua jasotzeko zailtasun hori jasateaz gain, emakume horiek mespretxua eta diskriminazioa jasan behar izaten dute beren gizartearen barruan, gero eta itxiagoa, patriarkalagoa eta kontserbadoreagoa baita, eta emakumeen osasuna ez baita lehentasuna. Zerrendaren isolamenduak eta gaixotasunak eragindako estigma sozialak heriotza goiztiar eta isil batera kondenatzen ditu kasu batzuetan.

*Condenadas en Gaza* cuenta la historia de varias palestinas de Gaza enfermas de cáncer que por el simple hecho de vivir en la Franja no tienen acceso al tratamiento que necesitan. El bloqueo israelí sobre este enclave impide la entrada de ciertos tratamientos y exige a estas pacientes un permiso de salida para poder recibir su tratamiento en otro hospital palestino de Cisjordania o Jerusalén-Este. Israel concede estas autorizaciones a cuentagotas. Además de sufrir como todas las personas enfermas de la Franja esta dificultad de acceso al tratamiento, estas mujeres se ven despreciadas y discriminadas dentro de su propia sociedad, cada día más cerrada, patriarcal y conservadora, donde la salud femenina no es una prioridad. El aislamiento de la Franja y el estigma social provocado por la enfermedad las condena en algunos casos a una muerte prematura y silenciosa.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 4 astelehena, 20:00etan / lunes 4 de octubre, 20:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 16 larunbata, 19:30ean / sábado 16 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18 astelehena, 19:00etan / lunes 18 de octubre, 19:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 20 asteazkena, 20:00etan / miércoles 20 de octubre, 20:00



## DÉCIDÉE

Marie Courandière / Fikzioa
Francia / 2021 / 6 min
V.O. Francés / SUBT. Castellano

marycour8@gmail.com

Elisek 30 urteak beteta ditu eta nekatuta dago bere bizitzaren ikusle huts izateaz. Bat--batean bere patua bertan behera utz dezakeen zerbait sortuko zaio...

Elise, está en los 30, está cansada de ser una espectadora en su propia vida. Pero surge algo que podría interrumpir repentinamente su destino...

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## EL RECREO

Navid Nikkhah Azad / Fikzioa
Irán / 2020 / 12 min
V.O. Árabe / SUBT. Castellano

navidnikazad@gmail.com

Ikasten ari den 17 urteko Sahar-ek jolas-orduaren ondoren bigarren hezkuntzako eskolara ez itzultzea eta futbol-zelaira joatea erabakiko du, AFCren Txapeldunen Ligako Esteghlal F.C. vs. Al-Ain partida ikustera. Kosta ahala kosta joan nahi du, nahiz eta badakien Iranen emakumeek debekatuta dutela estadiora sartzea.

Sahar es una estudiante de 17 años que está decidida a faltar a la escuela secundaria durante el recreo para ir al estadio de fútbol para ver el partido de fútbol entre el Esteghlal F.C. vs. Al-Ain como parte de la Liga de Campeones de la AFC. Lo quiere hacer, pese a la prohibición nacional de que las mujeres no pueden ir a los estadios de fútbol en Irán.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 16 larunbata, 21:30ean / sábado 16 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 19 asteartea, 17:30ean / martes 19 de octubre, 17:30



## EZ DUT DEUS ERE ESAN

Marta Gómez Calderón / Dokumetala
Euskal Herria / 2020 / 1 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

tamara@mugarikgabe.org

Intersekzionalitateak testuinguru bakoitzean dauden faktoreen interakzioari egiten dio erreferentzia. Hori horrela, indarkeria-egoerak bizi dituztenengan pentsatu behar dugu, eta garrantzia eman behar diegu hainbat faktoreri: testuinguruari, kulturari, egoera sozialari, kokapen geografikoari, sexu-orientazioari, dibertsitate funtzionaleko egoerei, bizi-zikloari eta arraza-etniari, esaterako. Azken batean, sexismoarekin bat egiten duten bazterkeriako eta dominazioko faktore horiei guztiei eta diskriminazioaren eta hark eragiten duen indarkeriaren gainean ikuspegi konplexuago bat izatera eramaten gaituzten horiei.

La interseccionalidad, permite dar cuenta de la interacción de diferentes factores en cada contexto. Se requiere entonces pensar en quienes sufren situaciones de violencia, y darle importancia al contexto, la cultura, tener en cuenta la condición social, la ubicación geográfica, la orientación sexual, las situaciones de diversidad funcional, el ciclo de vida, la pertenencia étnico racial; en definitiva, todos los factores de exclusión y dominación que convergen con el sexismo y nos desafían a complejizar la mirada sobre la discriminación y la violencia que engendra.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 16 larunbata, 20:00etan / sábado 16 de octubre, 20:00



## GUILLERMINA

Aida Esther Bueno Sarduy / Dokumentala
Cuba, Brasil, España / 2019 / 17 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

festival@vegaaltafilms.com

Benetako istorio batean oinarritutako *Guillermina* lanak 1940ko hamarkadako Habanako familia aberats bateko 9 urteko semearengan haren inude beltzak, Guillerminak, utzi duen arrastoa berreraikiko du. Lehen haurtzaroko oroitzapenetatik abiatuta, istorioa hedatu egingo da, protagonistak kontatutako gertaerak gainditiuz eta harago joanez. Animazioa eta artxiboko irudiak elkarlotzen dituen lan honek publikoa entzuten eta ikusten duena zalantzan jartzera eramango du.

Basada en una historia real, *"Guillermina"* es un trabajo que reconstruye las memorias de la huella que deja en un niño de 9 años, hijo de una familia acomodada en La Habana de los años 40 su nodriza, una mujer negra llamada Guillermina. A partir de los recuerdos de su primera infancia la historia se despliega, desbordando y trascendiendo los hechos narrados por el protagonista. Es un trabajo donde la animación y las imágenes de archivo se entrelazan para llevar al público a cuestionar lo que escucha y observa.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 17 igandea, 21:30ean / domingo 17 de octubre, 21:30



## HIJAS DEL BARRIO

Silvia Ayerra, Susana González / Dokumentala
España / 2021 / 22 min
V.O. Castellano

sgonzalezcolls@gmail.com

*Hijas del Barrio* 2021eko urtarrila eta apirila bitartean Irudi eta memoria laborategian Otxarkoagako emakume talde batekin eginiko lanaren emaitza da. Denbora-tarte horretan, astean behin lantegi bat egiteko bildu gara eta *Hijas del Barrio* sortu dugu: argazki-instalazio bat kalean eta ikus-entzunezko pieza bat. Horrela, Otxarreko emakumeen memoria kolektiboa osatzen duten istorio eta oroitzapen pribatuen mapa bat eratu dugu, argazkia eta bideoa erabilita. Ideia hori irudia baliatuko zuen esku hartzeko metodologia bat sortzeko beharretik etorri zen, horren bitartez norberaren memoria eta memoria kolektiboa lantzeko, familiako albumak eta artxibo pertsonalak baliatuta, eta bigarren mailan geratu diren etxeko eta eguneroko kontakizunei balioa emateko.

Hijas del Barrio es el resultado del trabajo realizado a través del Laboratorio de Imagen y Memoria con un grupo de mujeres de Otxarkoaga entre enero y abril del 2021. En estos meses, con un encuentro semanal en formato taller, hemos creado los resultados de Hijas del barrio: una instalación fotográfica en la calle y una pieza audiovisual. Así hemos creado un mapa de historias y recuerdos privados que configuran la memoria colectiva de las mujeres de Otxar, usando la fotografía y el video como formas de expresión. Esta idea, surge de la necesidad de crear una metodología de intervención a través de la imagen, donde trabajar la memoria propia y colectiva a través de los álbumes familiares y de los archivos personales, poniendo en valor los relatos domésticos y lo cotidiano que ha quedado en un segundo plano.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18 astelehena, 19:00etan / lunes 18 de octubre, 19:00



## IXA: PROSOPON

Egoitz Diaz Ibargoitia, Unai Portilla / Fikzioa
Euskal Herria / 2020 / 8 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

egoitzd.ibar@gmail.com

Komunean daudenean ideia ona iruditzen zaie zuzeneko bat grabatzea.

Cuando están en el baño les parece buena idea grabar un directo.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## LAS POLACAS

Carlos Barba Salva / Fikzioa
Cuba, Estados Unidos / 2021 / 25 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

info@promofest.org

“Habana. Ama-alabak bidaia bati ekingo diote Kuban, ‘polaquito’ izenez ezagutzen diren Fiat Polski zahar batean. Haien arteko lotura gorabehera, familia baten eta herrialde baten gatazkak azaleratuko dira. Elkarrizketan murgilduta, helmuga saihestezin baterako geratzen zaizkien kilometroak laburtzen joango dira”.

“La Habana. Madre e hija emprenden un viaje en un antiguo Polski Fiat, llamado popularmente en Cuba ‘polaquito’. El vínculo entre ellas no impide que afloren las turbulencias de una familia y un país. Sumidas en la conversación se acortan los kilómetros que las separan de un destino inevitable”.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 15 ostirala, 21:30ean / viernes 15 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 18 astelehena, 22:30ean / lunes 18 de octubre, 22:30



## OTRA HISTORIA

Amada Santos Relaño / Fikzioa
España / 2020 / 2 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

ciaparipeteatro@gmail.com

Otra historia filmak amona bati buruzko genero-indarkeriako istorioa kontatzen du minutu batean. Itxura guztien arabera, bilobak istorio bera errepikatuko du, ala ez... Dena keinu, hitz edo erabaki baten mende dago, eta horrek neskaren bizitza alda dezake.

*Otra Historia* cuenta en un minuto la historia de violencia de género sobre una abuela, una historia que parece que se va a perpetuar en su nieta, o no... Todo depende de un gesto, una palabra, una decisión que puede hacer cambiar la vida de la joven.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## PAS A DOS

Valèria Cuní / Fikzioa
España / 2021 / 16 min
V.O. Catalán / SUBT. Castellano

pas.a.dos.curtmetratge@gmail.com

Mireiak (17 urte) bere ballet eskola prestatzen ari den "Loti ederra" dantzaldiko dantzari nagusia izateko aukera du. Baina Mireia mutil batekin izan duen lehen harremanetik atera berria da, harreman zinez toxikoa. Hark neskarengan eragin duen inpaktuaren ondorioz, jasanezina egiten zaio mutil batekin Pas de Deux dantzatzeak eskatzen duen kontaktu fisikoa. Hala ere, dantza egitera behartuko du bere burua, bere lagun Clara ondo ez dagoela eta ezetz esaten ikasi behar duela ikusarazten saiatzen den bitartean.

Mireia, de 17 años, tiene la oportunidad de ser la bailarina principal del baile "La Bella Durmiente" que prepara su escuela de ballet. Pero Mireia acaba de salir de su primera relación con su novio, que ha sido muy tóxica. El impacto que le ha dejado en ella no le permite soportar el contacto físico al bailar el Pas de Deux con un chico. Sin embargo, se obliga a hacer el baile, mientras su amiga Clara intenta que se dé cuenta de que no está bien consigo misma y tiene que aprender a decir que no.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## PURO HORMIGÓN

Nieve Castro / Fikzioa
España / 2019 / 9 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

alicia@yaqdistribucion.com

Elkarren artean desberdinak diren bost emakumek ezaugarri bat partekatzen dute: gainditu beharreko oztopo handi bat. Arrakastaren bidean eginiko zentimetro bakoitzean talka egiten dute beren ibilbide itzela geldiarazten duen horrekin. Armak eskuan eta elkarlanean inolako sabairik gabe hazteko gai izango dira. Eta zuri? Zenbat zentimetro geratzen zaizkizu?

Cinco mujeres diferentes tienen algo en común: un gran obstáculo que destruir. A cada centímetro de éxito chocan con eso que les hace frenar sus carreras de gigantes. Armadas y unidas serán capaces de crecer sin techo alguno. ¿Y a ti? ¿Cuántos centímetros te quedan?

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 4 astelehena, 20:00etan / lunes 4 de octubre, 20:00

**Azkuna Zentroa Alhóndiga. Bilbao (SUBT. castellano)**
Urriak 14 osteguna, 19:30ean / jueves 14 de octubre 19:30

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 16 larunbata, 19:30ean / sábado 16 de octubre, 19:30

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 16 larunbata, 20:00etan / sábado 16 de octubre, 20:00



## QUEBRANTOS

María Elorza, Koldo Almandoz / Dokumentala
España / 2020 / 8 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

kimuak@filmotecavasca.com

Maite zenuen? —Bai. Uste dut duela gutxi utzi diodala maitatzeari. (Interferentziak. Isiluneak. Pitzadurak. Bi emakume hizketan. Erradiografia bat).

¿Tú le querías? - Sí. Creo que hace poco que he dejado de amarle. (Interferencias. Silencios. Grietas. Dos mujeres conversando. Una radiografía).

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Fnac. Bilbao**
Urriak 5 asteartea, 19:00etan / martes 5 de octubre, 19:00

**Hala Dzipo Musika Eskola. Barakaldo**
Urriak 8 ostirala, 19:30ean / viernes 8 de octubre, 19:30

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17 igandea, 19:30ean / domingo 17 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 18 astelehena, 21:30ean / lunes 18 de octubre, 21:30

**LEHIAKETARAKO FILMAK: KULTURARTEKOTASUNA**
PELÍCULAS A CONCURSO: INTERCULTURALIDAD



## #BOZA

Séverine Sajous, Anna Surinyach / Dokumentala
Marruecos, España, Francia / 2020 / 17 min
V.O. Francés / SUBT. Castellano

alicia@yaqdistribucion.com

Alhassane, Aminata, Mamadou, Mariam eta Yahyak Europara nola iritsi ziren azalduko digute lehen pertsonan eta beraien argazkiekin. Helburu bera zuten denek: boza egitea. Baina zer esan nahi du iristeko unean ahoskatzen den hitz horrek? Existitzen da benetan? Noiz betetzen da egiaz boza-ametsa? Helduko da egunen batean? #boza, Migrazioei buruzko pluralaren lehen pertsonako *selfie* bat.

Alhassane, Aminata, Mamadou, Mariam y Yahya explican en primera persona y con sus propias imágenes cómo han llegado a Europa. Todas tenían un mismo objetivo, hacer boza, pero ¿qué significa esta palabra que se pronuncia en el momento de llegar? ¿Existe en realidad? ¿Cuándo se cumple de verdad el sueño de boza? ¿Se llega algún día? #boza, Un selfi en primera persona del plural sobre las migraciones.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 16 larunbata, 17:00etan / sábado 16 de octubre, 17:00




## BIGARREN BIDAIA

Unax Blanco Azpiri / Dokumentala
Euskal Herria, España, Marruecos / 2021 / 24 min
V.O. Castellano / SUBT. Euskera

maratilla@yahoo.es

Duela urte batzuk Bilbora iritsi ginen lau gazte magrebtarren arteko elkarrizketa irekia, non familia, gure jatorrizko lurraldea, alde egiteko arrazoiak, arrazakeria, etorkizuna, ametsak eta beste gai batzuk partekatzen ditugun. Lehen trantsizio-bidaia bat egin genuen, gure etxeak utzi eta bigarren bidaia bati ekiteko asmoarekin; gaur gizarte hau ere gurea izatea nahi dugu.

Conversación abierta entre cuatro jóvenes magrebíes que llegamos a Bilbao hace unos años en la que compartimos temas sobre la familia, nuestra tierra de origen, motivos de la partida, racismo, futuro, sueños. Una vez realizado ese primer viaje de tránsito desde que abandonamos nuestras casas en busca de un lugar donde emprender el segundo viaje, hoy queremos que esta sociedad sea también la nuestra.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19 asteartea, 19:00etan / martes 19 de octubre, 19:00



## DESCENDENTS

Judit Aranda Moreno, Carlos Collazos Rodríguez / Dokumentala
España / 2020 / 60 min
V.O. Catalán, castellano / SUBT. Castellano parcial

sicom@sicom.cat

“Eta zu, nongoa zara?” Hori da katalan askok, hau da, dokumentu honetako protagonistek, jasan behar izaten duten diskriminazioetako bat. Erakundeen eta gizartearen aldetik bizi duten etengabeko zalantzan jartze horrek beren nortasunaren sortzaile bihurtzen ditu. Kataluniara etorritako migratzaile afrikar, asiar eta latinoamerikarren seme-alabak dira. Haietako askorentzat, Espainian jaio izanak ez dakar automatikoki nazionalitatea eskuratzea, ez dute bozkatzeko eskubiderik ez lanpostu publikoak lortzeko aukerarik. Hemen jaiotzea arraza-aurreiritzien, bazterkeriaren, erreferente faltaren, genero-indarkeriaren eta abarren artean bizirik irautea da... bi kulturen artean mugitzen den identitate baten etengabeko bilaketa, inguruko arrazismoa, klasismoa eta matxismoa jasan behar duten bitartean. Dokumental honek gazte horiek bizi izan dituzten ezbehar guztiak erakusten ditu, eta, batez ere, errealitate horiek eraldatzeko duten gaitasuna, desberdintasuna eta aniztasuna balio bihurtuz.

“Y tú ¿de dónde eres?” Esta es una de las discriminaciones que deben afrontar muchas personas catalanas, protagonistas de este documental. un cuestionamiento constante, tanto a nivel institucional como social, que las convierte en las creadoras de su propia identidad. Son descendientes, hijos e hijas de personas migrantes africanas, asiáticas, latinoamericanas que vinieron a Cataluña y que ahora forman parte. Para muchas de estas personas descendientes, “nació en España” no se traduce en una obtención automática de nacionalidad, no tienen derecho a voto, no tienen acceso a trabajos públicos. Nacer aquí es sobrevivir entre prejuicios raciales, de exclusión, falta de referentes, violencia de género... es la búsqueda constante de una identidad propia que bascula entre dos culturas con el racismo, el clasismo y el machismo del entorno. Este documental muestra todas estas adversidades vividas en primera persona por estas personas y sobre todo su capacidad para transformar estas realidades haciendo de la diferencia y la diversidad un valor.

**Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusian / Salón de Actos de la Facultad de Economía y Empresa (Sarriko)**
Urriak 20 asteazkena, 12:00etan / miércoles 20 de octubre, 12:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 20 asteazkena, 22:30ean / miércoles 20 de octubre, 22:30



## EN LA CALLE

David Macián / Dokumentala
España / 2021 / 20 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

davidmacian@gmail.com

Askotan bizitza jokoan jarri behar izaten duten ibilbide luze baten ondoren, ehunka migratzaile gaztek kalean bizi behar izaten dute Espainiara iristen direnean. Aurrera egiteko gogoa eta normalean haien artean ezartzen den elkartasuna dira, funtsean, dituzten aukera bakarrak.

Tras un largo periplo en el que muchas veces se juegan la vida, cientos de jóvenes migrantes se ven abocados/as a vivir en la calle cuando llegan a España. Sus ganas de salir adelante y la solidaridad que normalmente se establece entre ellos y ellas son básicamente sus únicas bazas.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 17 igandea, 21:30ean / domingo 17 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 18 astelehena, 17:30ean / lunes 18 de octubre, 17:30



## EUROPE´S FORGOTTEN GRAVEYARD

Jean-Marc Joseph / Dokumentala
Italia, Malta, Reino Unido, España / 2020 / 23 min
V.O. Castellano, inglés, francés / SUBT. Castellano parcial e inglés parcial

jm@superjeanmarc.com

Open Arms taldearekin bat egingo dugu munduko migrazio-biderik arriskutsuenean eta orain arteko misiorik hilgarrienean murgiltzen den bitartean. Kalkuluen arabera, 19.000 pertsona hil edo desagertu dira Mediterraneo itsasoan 2014tik, Libiatik Europara itsasontziz egiten ari ziren bidaian, gerratik, jazarpenetik eta pobreziatik ihesi. 2015ean sortu zenetik, Open Arms GKE espainiarrak 60 mila errefuxiatu baino gehiago erreskatatu ditu. Baina ezerk ez zuen prestatu espedizio honetan izandako gertaeretarako edo 2020ko azaroaren 1ean bizitakoetarako.

Nos unimos a la tripulación de *Open Arms* mientras se embarcaban en la ruta migratoria más peligrosa del mundo, y su misión más mortífera hasta la fecha. Se estima que 19 mil personas han muerto o desaparecido en el mar Mediterráneo desde 2014 mientras intentaban el traicionero viaje en barco desde Libia a Europa, huyendo de la guerra, la persecución y la pobreza. Desde su fundación en 2015, la ONG española *Open Arms* ha rescatado a más de 60 mil personas refugiadas. Pero nada la preparó para los eventos que se desarrollaron en esta expedición o para los eventos del 1 de noviembre de 2020.

**Fnac. Bilbao**
Urriak 5 asteartea, 19:00etan / martes 5 de octubre, 19:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 15 ostirala, 21:30ean / viernes 15 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 18 astelehena, 22:30ean / lunes 18 de octubre, 22:30



## MBEUK MI

Ndèye Sénaba Lakhone, Adja Mamy Mboup, El H. Modou Wade / Dokumentala
Senegal / 2020 / 8 min
V.O. Wolof / SUBT. Castellano

info@hahatay.org

Migrazioa gizateriaren historiaren berezko fenomenoa da. Hala ere, estatuen politikek zaildu egiten dituzte lurraldeen arteko pertsonen mugimendu natural horiek. 2020ko bigarren erdian, 500 senegaldar baino gehiago hil ziren Kanariar Uharteetako kostaldera kaiukoetan iritsi nahian. Beren ametsak jarraitzeko legeei eta itsasoaren arriskuari aurre egin zieten pertsona batzuen artean erantzun bidal dabil Gandioleko (Senegal iparraldea) gazteria.

La migración es un fenómeno intrínseco a la historia de la humanidad. Sin embargo, las políticas de los estados dificultan estos movimientos naturales de personas entre territorios. En la segunda mitad del año 2020, más de 500 personas senegalesas perdieron la vida intentando alcanzar en cayuco las costas de las Islas Canarias. La juventud de Gandiol (norte de Senegal) busca respuestas entre algunas de las personas que han se han enfrentado a las leyes y al peligro del mar, por seguir sus sueños.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 15 ostirala, 19:30ean / viernes 15 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 17 igandea, 19:00etan / domingo 17 de octubre, 19:00



## ONCE UPON A PLACE

Cèlia Novis / Dokumentala
Estados Unidos / 2021 / 73 min
V.O. Castellano, inglés / SUBT. Castellano parcial

info@promofest.org

*Once Upon a Place* New Yorkeko 150 urteko eraikin baten istorio ezezaguna da. Lan honen bitartez ipuin baten modura kontatuko digu bere bizitza "La Nacional" eraikinak. Istorio harrigarri hori Estatu Batuetara migratu zuten espainiarren historia da, eta New Yorkek bizi izan zuen amets amerikarraren gorakadaren eta beherakadaren historia, baita bizitza berri bat aurkitzeko aukera izan zuten hainbat pertsonarena ere.

*Once Upon a Place* es la desconocida historia de "La Nacional"; un edificio de 150 años en Nueva York, que nos cuenta su propia vida como un cuento. Su sorprendente historia es la de la marea de la inmigración española a los Estados Unidos; del auge y caída de Nueva York como hogar del sueño americano y la historia de cientos de vidas tocadas por la posibilidad de una nueva vida.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 19 asteartea, 19:00etan / martes 19 de octubre, 19:00



## STANBROOK

Óscar Bernàcer / Fikzioa
España / 2020 / 20 min
V.O. Castellano, inglés, catalán / SUBT. Castellano parcial

festhome@agenciafreak.com

Alacanteko portua, 1939ko martxoaren 28a. Archibald Dickson *Stanbrook* ontziko kapitaina eta bere tripulazioa kargamentu baten zain daude. Euren ontzitik, Espainiako Gerra Zibilaren azken egunen lekuko izango dira; hiria kaosak hartuta dago. Portuan milaka pertsona pilatzen dira Errepublikak pleitatutako ontziak noiz iritsiko zain. Horietako bat da Joan. Emaztea frontean galdu ondoren, portura joan da Mariarekin, zortzi urteko alabarekin. Baina ontziak ez dira iristen. *Stanbrook*etik, Dickson kapitainak bere gain hartuko du frankismoaren errepresio gupidagabea pairatzera kondenatutako ia hiru mila pertsona ontziratzeko eta ebakuatzeko ardura.

Puerto de Alicante, 28 de marzo de 1939. El Capitán del Stanbrook, Archibald Dickson y su tripulación esperan la llegada de un cargamento. Desde su buque, asisten a los últimos días de la Guerra Civil Española y el caos se apodera de la ciudad. En el puerto se amontonan miles de personas esperando la llegada de barcos fletados por la República que les conduzcan al exilio. Uno de ellos es Joan, que después de perder a su mujer en el frente, acude al puerto con María, su hija de ocho años. Pero los barcos no llegan. Desde el Stanbrook, el Capitán Dickson asumirá la responsabilidad de embarcar y evacuar a casi tres mil personas condenadas a sufrir la implacable represión franquista.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 2 larunbata, 20:00etan / sábado 2 de octubre, 20:00

**Auditorio Icaza Auditorium (Deusto Business School)**
Urriak 15 ostirala, 12:15ean / viernes 15 de octubre, 12:15

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 16 larunbata, 20:00etan / sábado 16 de octubre, 20:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 16 larunbata, 19:30ean / sábado 16 de octubre, 19:30



## TERANGA

Mikel Aguirre Aspiazu, Maider Bernad Zugasti, Ainhoa Imaz Marín / Dokumentala
Euskal Herria / 2021 / 19 min
V.O. Castellano, euskera / SUBT. Euskera parcial, castellano parcial

ainhoaimazz@gmail.com

*Teranga* migratzaileen errealitatea islatzen duen dokumentala da. Helburu bera duten lau istorio.

*Teranga* es un documental que plasma la realidad de las personas migrantes. Cuatro historias con un mismo objetivo.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Auditorio Icaza Auditorium (Deusto Business School)**
Urriak 15 ostirala, 12:15ean / viernes 15 de octubre, 12:15

**SAIOA + SOLASALDIA** SESIÓN + COLOQUIO
**Afrikako narratiba berriak: artea eta kultura eraldaketarako tresna gisa**
Nuevas narrativas africanas: el arte y la cultura como herramientas de transformación

**Yanis Gaye** (Senegal)
Ekoizlea eta Goreé zinema-jaialdiaren sortzailea
Productor y fundador del Festival de Cine Goreé

**Saliou Waa Guendoum Sarr** (Senegal)
Zinema-zuzendaria eta musikaria / Director de cine y músico

**Mamadou Diop** (Senegal)
Erreportari, argazkilari eta zinemagilea / Reportero, fotógrafo y cineasta

**Azkuna Zentroa Alhóndiga. Bilbao (SUBT. Castellano)**
Urriak 14 osteguna, 19:30ean / jueves 14 de octubre 19:30

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 15 ostirala, 19:30ean / viernes 15 de octubre, 19:30

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 16 larunbata, 20:00etan / sábado 16 de octubre, 20:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 19 asteartea, 20:00etan / martes 19 de octubre, 20:00



## TESLIMAT

Doğuş Özokutan / Fikzioa
Chipre, Turquía, Siria / 2020 / 12 min
V.O. Turco / SUBT. Castellano

info@distributionwithglasses.com

Yusufek bere kamioi-hozkailuan errefuxiatuak eramateko enkargua onartuko du, alabaren bizitza salbatzeko dirua lortzeko modu bakarra delakoan. Kontrabandista errefuxiatuekin iristen denean, Yusuf konturatuko da tartean haurrak ere badirela eta ez direla bizirik irtengo hoztutako kamioi horretatik. Hala ere, aurrera jarraituko du bere lanarekin, haien bizitzak arriskuan jarrita.

Yusuf acepta el encargo de llevar personas refugiadas con su camión frigorífico creyendo que es la única forma de conseguir dinero para salvar la vida de su hija. Cuando el contrabandista llega con las personas refugiadas, Yusuf se da cuenta de que también hay niñas y niños que no sobrevivirán en un camión refrigerado. Pero sigue adelante con su trabajo, arriesgando sus vidas.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Hala Dzipo Musika Eskola. Barakaldo**
Urriak 8 ostirala, 19:30ean / viernes 8 de octubre, 19:30



## THE FORGOTTEN

Tareq Baddar / Dokumentala
Jordania / 2021 / 28 min
V.O. Árabe, bengalí / SUBT. Castellano

tareq@atfilms.net

Itsasertzetik gertu dauden errefuxiatu-guneak, etxebizitza-egoera miserableak, kanpin-denda sakabanatuak eta ahaztutako pertsonak. Denbora izoztu egiten den eta hutsa zain duen lekua. Beren herrialdean jasan beharreko umiliaziotik ihes egin zuten patu ezezagun baterantz. Rohingya errefuxiatuak bi suren artean: Birmaniako gobernuaren ekintza izugarriak edo Bangladesheko kanpin-denden baldintza miserableak. Historiako migrazio masibo handienetako bat, pobreziaz, gaixotasunez eta oinarrizko giza eskubideen etengabeko urraketez beteriko eremuetara.

Campos de personas refugiadas cerca de la orilla, condiciones de vivienda miserables, tiendas de campaña dispersas y personas olvidadas. Un lugar donde el tiempo se congela y espera el vacío. Huyeron de la humillación que sufrían en su país hacia un destino desconocido. Las personas refugiadas rohingya entre dos fuegos: las horribles acciones del gobierno de Birmania o las miserables condiciones de las tiendas de campaña en Bangladesh. Una de las mayores migraciones masivas de la historia hacia unos campos desbordados de pobreza, enfermedades e incesantes violaciones de los derechos humanos básicos.

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 19 asteartea, 20:00etan / martes 19 de octubre, 20:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17 igandea, 19:30ean / domingo 17 de octubre, 19:30

# 12. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA




Kultura, Ondarea eta
Garapen Iraunkorra

Cultura, Patrimonio y
Desarrollo Sostenible

Culture, Patrimoine et
Développement Durable

**18 - 19**

Urria - Octubre - Octobre

www.kcd-ongd.org
CINE INVISIBLE
Bilbao

# LEHIAKETAZ KANPOKO FILMAK
# PELÍCULAS FUERA DE CONCURSO

## Muestra de los talleres IKASLEEN KLAKETA tailerreko aukeraketa

Kultura Communication Desarrollo - KCD GGKEk Ikasleen Klaketa izeneko garapenerako eta gizartea eraldatzeko tailerra antolatzen du urtero. Aurten, 304 ikaslek hartu dute parte tailerrean (189 emakumek eta 115 gizonek) parte hartu dute tailerrean: IES Artaza-Romo BHI, IES Mungia BHI, CIFP Ibarrekolanda LHII eta CIFP Iurreta LHII ikastetxeetakoek.

Ikasleek gai sozialekin lotutako edukia duten 61 film labur egin zituzten, eta ikastetxeetan daude erabilgarri gai sozialak lantzeko. Adibide gisa, horietako bost lan proiektatuko ditugu:

Kultura Communication Desarrollo - KCD ONGD organiza cada año el taller de Comunicación para el Desarrollo y la Transformación Social con teléfonos móviles Ikasleen Klaketa. Este año han participado en el taller 304 estudiantes (189 mujeres y 115 hombres) de los siguientes centros educativos: IES Artaza-Romo BHI, IES Mungia BHI, CIFP Ibarrekolanda LHII, CIFP Iurreta LHII.

El alumnado realizó 61 cortometrajes de contenido social que están a disposición de sus centros escolares para trabajar diferentes temáticas sociales. A modo de muestra, se proyectarán cinco de estos trabajos realizados:



### AXOLA

Martina Rodriguez, Maitane Rojo, Ainara Bilbao, Iratxe Barcina / Fikzioa
Euskadi / 2021 / 2 min / Sin diálogos

info@kcd-ongd.org

Pertsona baten alaitasuna ez dago gaitasun fisikoen menpe. Hau irudikatzeko sentsazioak eta sentimenduak islatu ditugu.

La alegría de una persona no depende de sus capacidades físicas. Y para demostrarlo, hemos reflejado sensaciones y sentimientos.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## EROS

Marene Urrutia, Chloe Martínez, Miren Abando, Maddi Garai, Elene Abando, Malen Grünig, Nerea Anuzita, Naia Lekue / Bideoklipa
Euskadi / 2021 / 2 min / Sin diálogos

info@kcd-ongd.org

Egunerokotasuneko erotismo naturalarena, subjektibotasuna gidatua eta ironiaz josia.

El erotismo cotidiano más natural dirigido de una forma subjetiva y plagado de ironía.

**Emanaldiak institututan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 16 larunbata, 19:30ean / sábado 16 de octubre, 19:30



## ESPECIAL POR DEFECTO

Diego Mateo, Mohamed Chandouri, María Uriarte, Lucía Etxebarria, Marta Foglia / Fikzioa
Euskadi / 2021 / 3 min
V.O. Castellano / SUBT. Castellano

info@kcd-ongd.org

Zelako kaltea egiten duten gazteen bizitzan sare sozialak.

Las redes sociales han perjudicado enormemente la vida de la juventud.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## ILAUN

Ane Rique, Sandra Rey, Izaro Fernández, Elena Franco, Ane de Regil, Ane Langarika / Fikzioa
Euskadi / 2021 / 4 min
Sin diálogos / SUBT. Euskera, castellano

info@kcd-ongd.org

Jaio bezain laster, azkarregi doan sistema baten preso gara. Hau da, gure bizitzako lehenengo urteetan poztasunez beteriko momentuak bizi arren, ohartu gabe ezarritako bide zehatz bat jarraitzera behartuta gaude, programatutako gizakiak izateko.

Nada más nacer, somos presas/os de un sistema que avanza demasiado rápido. Es decir, a pesar de que en nuestros primeros años vivimos momentos llenos de felicidad, nos obligan a seguir un camino establecido que nos lleva a convertirnos en seres programados sin que nos demos cuenta.

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 17 igandea, 19:30ean / domingo 17 de octubre, 19:30



## KONPLEXU

Aura Brito, Garazi Fernandez de las Heras, Alba Lorente, Uxue Lamas / Fikzioa
Euskadi / 2021 / 3 min
Sin diálogos / SUBT. Euskera

info@kcd-ongd.org

Konplexua besteekin konparatuta ezberdinak egiten gaituzten ezaugarriak ditugularen sinesmena da, segurtasunik gabeko jarrerarekin adierazten duguna. Zure gorputza ikusita zer aldatuko zenuke? Edo hobe esanda, aldatuko zenuke ezer?

El complejo es una creencia de que tenemos características que nos hacen diferentes en comparación con las demás personas, que expresamos con una actitud insegura. ¿Qué cambiarías viendo tu cuerpo? O mejor dicho, ¿cambiarías algo?

**Emanaldiak institutuetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro

**Muxikebarri - Getxoko Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa**
**Muxikebarri - Centro de Arte, Cultura y Congresos de Getxo**
Urriak 15 ostirala, 19:00etan / viernes 15 de octubre, 19:00

# ERALDATZEKO KOMUNIKATU

Hausnartu *Informar* RAISE AWARENESS
EXPLAIN **Komunikatu** Denunciar

CINE INVISIBLE 13
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2021 BILBAO

**Entertain** *Destacar* Transform
**Aldarazi** Empoderar

# COMUNICAR PARA TRANSFORMAR

KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA

www.kcd-ongd.org

# EPAIMAHAIAK
JURADOS

## GIZA ESKUBIDEAK
DERECHOS HUMANOS

### YAYONE ALTUNA CHARTERINA



Abokatua da, eta, 2009az geroztik, bere bulegoa du. Zigor-zuzenbidean, familia-zuzenbidean eta atzerritarrei buruzko zuzenbidean jarduten du bereziki. Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeko diputatua da. Horrez gain, batzordekidea da Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko (BAEOko) Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Batzordean, Abokatu Gazteen Espainiar Konfederazioko (CEAJko) Abokatutza Behatokian (Giza Eskubideen eta Atzerritarrei buruzko azpibatzordeetan) eta Bizkaiko Abokatu Gazteen Elkartean. Deustuko Unibertsitatearen eta Bizkaiko AEOren Abokatutzaren Jarduerarako Unibertsitate Masterreko irakaslea da. Lanbidea eta hirugarren sektoreko lana uztartzen ditu, gizarte-eraldaketaren eta komunitate-indartzearen aldeko proiektuetan jarduten baitu toki-mailako gizarte- eta hezkuntza-programen bidez.

Abogada con despacho propio desde 2009, con dedicación preferente en el área penal, derecho de familia y extranjería. Diputada de la Junta de Gobierno del Colegio de la Abogacía de Bizkaia. Miembro de la Comisión de Cooperación Internacional y Educación para el Desarrollo del ICA-Bizkaia, del Observatorio de la Abogacía de CEAJ (subcomisiones de DDHH y extranjería), y de la Agrupación de la joven Abogacía de Bizkaia. Profesora del Máster Universitario de Acceso a la Abogacía, de la Universidad de Deusto-ICABizkaia. Compagina su profesión con el tercer sector, trabajando en proyectos por la transformación social y el fortalecimiento comunitario a través de programas socioeducativos de ámbito local.

### JASONE SERTUTXA GOROSTIZA



Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioa da 1989az geroztik, eta gizarte-testuinguruan jardun du beti lanean, Gizarte Ekintza eta Turismo departamentuetan. 2021eko apirilaren 9az geroztik, Berdintasuna, Lankidetza eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusian ari da. Lanetik kanpo, hainbat ikastaro egin ditu arlo hauen inguruan: familia-psikoterapia, bitartekaritza eta gatazken konponbidea, eta adimen emozionala.

Licenciada en Filosofía y Ciencias de la educación. Desde 1989 es funcionaria en la Diputación Foral de Bizkaia, siempre en el contexto social, en los departamentos de Acción Social, así como en el de Turismo. Desde el 9 de abril de 2021, está adscrita a la Dirección General de Cooperación y Diversidad. Fuera del marco laboral, ha realizado diferentes cursos en el ámbito de la psicoterapia familiar, Mediación y resolución de conflictos, Inteligencia emocional.

## GUSTAVO DE LA ORDEN BOSCH



Zuzenbidean lizentziaduna, giza eskubideetan espezializatua. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuan egiten du lan ikertzaile laguntzaile, Deustuko Unibertsitatean. Doktoretza ere egiten ari da bertan, gai honen inguruan: Asilo-eskubidea Europar Batasuneko migrazio irregularraren kriminalizazioaren aurrean. Migratzaile eta errefuxiatuen eskubideak babestea helburu duten gobernuz kanpoko erakunde batzuetan hartu du parte. Gaur egun, Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak erakundean dabil.

Licenciado en Derecho, especialista en derechos humanos. Trabaja como asistente de investigación en el Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto, donde realiza su doctorado sobre el derecho de asilo ante la criminalización de la migración irregular en la Unión Europea. Ha participado en diferentes organizaciones no gubernamentales dedicadas a la protección de derechos de personas migrantes y refugiadas. Actualmente forma parte de Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia.

## EMAKUME BATEK BURUTUTAKO LANIK ONENA
## MEJOR OBRA REALIZADA POR UNA MUJER

## ANA BARRENA LERTXUNDI



Zinema eta ikasle-mugimendua. Berlinen zuzenbidea ikasten ari zela, SoulKino proiektua sortu zuen (2016). Doan lagatako zinema-areto bat artisten eta nazioarteko politikaren arteko elkargune bihurtu zen. Gaur egun, unibertsitateko bizitza eta zinema uztartzen jarraitzen du, teorian eta praktikan. *La noche americana* (2020) idatzi zuen María Meira gidoilari argentinarrak eta Cervantes Institutuak antolatutako *Usina del Guión breve* programarako. Beste ideia batzuk ere baditu gauzatzeko prest. *ECCHR (European Center for Constitutional and Human Rights)* erakundeko eta *The Left Berlin* aldizkariko kolaboratzailea da. Feminista da.

Cine y movimiento estudiantil. Siendo estudiante de derecho en Berlín creó el proyecto SoulKino (2016). Una sala de cine gratuita se convirtió en punto de encuentro entre artistas y política internacional. Actualmente, sigue compaginando la vida universitaria con el cine en teoría y práctica. Escribe *La noche americana* (2020) para la *Usina del Guión breve*, que organizan la guionista argentina María Meira y el Instituto Cervantes. Otras ideas están a punto de realizarse. Colaboradora de la *ECCHR* (European Center for Constitutional and Human Rights) y del medio *The Left Berlin*. Feminista.

## ANA EROSTARBE MADRAZO



Kazetaria. Komunikazio estrategikoan egiten du lan, Linking Ideas enpresan; horren bazkide sortzailea da. Poesiarekin eta argazkilaritzarekin batera, zinema da haren zaletasun nagusietako bat. *Doce Miradas* kolektiboaren bultzatzailea da (2018ko Euskal Kazetaritza Saria). Emakumeek arlo publikoan duten agerikotasunari buruz eta, batez ere, arteen munduan duten proiekzioari buruz idazten du kolektibo horren argitalpenetan. Gipuzkoako Lankidetza Mahaiko kidea da.

Periodista, se dedica a la Comunicación Estratégica en Linking Ideas, empresa de la que es socia fundadora. Junto con la poesía y la fotografía, el cine es una de sus grandes aficiones. Es la impulsora del colectivo Doce Miradas (Premio Periodismo Vasco 2018), donde escribe sobre la visibilidad de la mujer en la esfera pública y de manera particular, sobre su proyección en el mundo de las Artes. Forma parte de la Mesa de Cooperación de Gipuzkoa.

## MAITE SAGASTI GOICOECHEA



Historian eta Kultura Ondarean lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, eta Ondare Historiko Artistikoan masterduna Salamancako Unibertsitatean. 2006az geroztik, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean egiten du lan, giza eskubideei, nazioarteko ekintza humanitarioari, migrazioari eta europar ikasketei lotutako nazioarteko masterrak koordinatzen.

